

## HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

# 0-2 urteko haurren eskolatzea. Egokitzea ala etxekotzea?

**Egilea: Ander Alonso Gutierrez**

**Zuzendaria: Elena Herrán Izagirre**

**Leioan, 2015(e)ko Ekainaren 1ean**

EGILEAREN ONIRITZIA



ZUZENDARIAREN ONIRITZIA



## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
2. Atxikimenduaren eraketa prozesua .....	6
3. Banaketagatiko larritasuna .....	9
4. Etxekotze prozesua.....	9
4.1. Eskolarekiko lehenengo kontaktua: izen ematea .....	10
4.2. Ezinbesteko informazio trukaketarako uneak: haur eskolako batzarrak .....	10
4.3. Lehenengo eskola egunak.....	14
4.4. Zailtasunak.....	20
4.5. Prozesua errazten duten zenbait ekarpen .....	22
4.6. Aurrera eta atzera pausoak.....	24
4.7. Normaltasunaren koloreak .....	25
5. Ondorioak.....	27
6. Erreferentzia bibliografikoak.....	29

**Laburpena:** Azken urteetan eskolatzeko goiztiarrak nabarmen egin du gora gure gizartean. Gero eta gehiago dira hilabete gutxirekin haur eskolara joaten hasten diren haurrak, beraiantzat segurtasun iturri den ingurunetik aldentuz. Banaketa hau bereziki zaila suerta dakieke ume gehienei aparteko ezinegonak, larritasun uneak edota gaixotasunak sortuz, eskolarekiko harremana betirako baldintzatzeaz gain. Hori dela eta, haur txikiaren eskolatzearan inguruan hausnartzeko beharra dago ezinbestean. Gaur egun haurra haur eskolako erritmo eta eskakizunetara ahalik eta azkarren moldatzeko asmoz, egokitzapenaldi bezala ezagutzen den denboraldia eskaintzen zaio haur txikiari, bere garaian Haur Hezkuntzaren bigarren ziklokoei eskaintzen hasi zitzaizen bezala. Zoritxarrez honek egoerari zailtasun gehiago erantsi dizkio, ez baitira haurtxo eta haur txikiaren erritmoak errespetatzen. Hori dela eta, hezitzaileen muina eskola atsegina bihurtzeko asmotan, komunikazioan eta errespetuan oinarritutako etxekotze prozesua aurkezten da, zeinen helburua haurraren hezkuntzan parte hartzen duten guztien, familia eta eskola, elkarlanari esker bere ongizatea bermatu eta haur eskolarako igarobidea erraztuko duen giro lasaia, atsegina eta ez bakarrik adinari, baizik eta norberaren beharrianen arabera egokia sortzea den.

**Hitz gakoak:** *etxekotze-prozesua, atxikimendu irudiarrekiko banaketa, eskolatzeko goiztiarra, haurraren ongizatea, erritmo desberdinekiko errespetua*

**Resumen:** En los últimos años la escolarización temprana ha experimentado un notable aumento en nuestra sociedad. Cada vez son más los bebés que habiendo cumplido los cuatro o cinco meses son escolarizados alejándolos de este modo de un entorno en el que se encuentran seguros. Esta separación puede resultar difícil causando en los bebés inquietud, momentos de angustia o incluso enfermedades, además de condicionar para siempre su relación con la escuela. Es por eso que resulta imprescindible reflexionar en torno a la escolarización del niño pequeño. Hoy en día con el objetivo de que el niño se amolde lo antes posible al ritmo y exigencias de la escuela-infantil, se ofrece un periodo conocido como periodo de adaptación, al igual que se ofreció años atrás en el segundo ciclo de Educación Infantil. Desgraciadamente, este proceso no hace más que dificultar aún más la separación, ya que no es respetado el ritmo del niño. Es por eso que a continuación se presenta el proceso de familiarización. Un proceso basado en el respeto y la comunicación cuyo objetivo es crear mediante la comunicación de todo aquel que participe en la educación del niño un entorno relajado y agradable, no sólo en función de la edad del niño sino también en función de las necesidades de éste.

**Claves:** *proceso de familiarización, separación de la figura de apego, escolarización temprana, bienestar del niño, respeto hacia los diferentes ritmos*

**Abstract:** Over recent years, early schooling has experienced a significant increase in our society. There are more and more infants who start going to school at the age of four or five months, being moved away from an environment which is secure for them. This separation can be difficult for the infant causing anxiety, moments of distress and even illnesses; in addition, such separation may condition the relationship between the infant and school forever. That is why it is crucial to reflect on the schooling of the infant. Nowadays, a period known as adaptation process is offered in schools with the aim of adjusting the infant to the rhythm and requirements of the school. Unfortunately, however, this process makes the separation even more difficult since it does not respect the rhythm of the infant. It is for this reason that a so-called familiarization process has been introduced. A process based on respect and communication which objective is to create a relaxed and pleasant environment by means of communication among all people taking part in the education of the infant. This process responds not only to the child's age, but also to the needs of the child.

**Keywords:** *familiarization process, separation from the attachment figure, early schooling, infant's well-being, respect to the different rhythms*

## 1. SARRERA

Gaur egungo egoera sozial eta ekonomikoa dela eta gurasoek nahi baino arinago eskorlatu behar izaten dituzte beraien seme-alabak. Eustat Euskal Estatistika Erakundearen arabera urte bat duten Euskal Herriko haurren %44,3a eskolaturik zegoen 2012-2013 ikasturtean eta bi urteko haurren %92,2a. (Iturria: [http://eu.eustat.es/ci\\_ci/indice.html#axzz3Zee1Hpbe](http://eu.eustat.es/ci_ci/indice.html#axzz3Zee1Hpbe))

Honek behar berri bat sorrarazi du, eskolatze goiztiarra eskaintzen duten zentroyen agerpena. Haurra hilabete gutxirekin hasten da hartzaindegira joaten haren atxikimendu-irudiarekiko lotura garatzen ari den unean. Adin honetan, haurrak era argian erakusten du bere atxikimendu-irudiarekiko lehentasuna, hau izan baita haurrak izan dituen beharrak ase eta segurtasuna eskaini dion pertsona ia bakarra eta hortaz haurrak ezinbestekotzat jotzen duena. Gainera haurrak ezezagunetikiko ukapena ere erakusten du, kasu honetan irakaslearenganako eta etapa berri honetan parte hartuko duen gainontzekoenganako.

Ondorioz, haurrak bere familiarekiko eta zehatzago atxikimendu-irudiarekiko esperimentatuko duen banaketa gogorra edo eta gogorregia suertatuko da batzuetan. Izan ere, haurrak bere burua eremu eta pertsona ezezagunekin eta amaierarik gabeko denbora batean ikusiko du, honek bere burua egoera inseguru batean sentitzera eramanez eta ondorioz larridura sentimendua nagusituko da haurraren: negar egingo du, oihu egingo du, geldirik geratuko da leku batean mugitu gabe... Baina zoritxarrez hor ez da arazoa

amaitzen, baizik eta eskola hasiera oso gaizki bizi izaten duten umeei normalean atzerapena eta aparteko zailtasunak izaten dituzte eskola zereginetan, hots beraien ikaste prozesuan eta garapen psikologikoan ere, eta hauek askoz ere ikusgarriagoak dira eskolatze osoan zehar.

Aipatutako sufrimendua arintzeko, atzerapena saihesteko eta eskolarako igarobidea errazteko asmoz, haur eskola gehienek urteetan zehar egokitzapenaldi bezala ezagutzen den epe bat eskaini dute zeinetan haurra eskolara moldatu egiten den, hau da bertako erritmo eta profesioaletara, askotan haurrak egoera deserosoaren aurrean amore emanaz. Hau da, eskolako arau eta erritmoen arabera jokatzuz bere erritmoa alde batera utziz.

Bestalde, gaur egun Haur Hezkuntzan eta bereziki lehenengo zikloan ikus daitekeen "lehen-mailaratzea" (Herrán, 2014) dela eta, haur txikia oso arin egin nahi da handi eta ondorioz ez da bere erritmo naturala errespetatzen. Honek bere eragina du baita ere haurren eskolatzean izan ere ez zaie behar besteko denbora eskaintzen egoera berriari aurre egiteko eta honetara nahi eta nahi ez moldatzeko eskatzen zaio. Ondoren adin honetan lekurik izan beharko ez luketen edukiak irakasten hasteko. Era honetan, lehenengo zikloaren izaera hezgarria alde batera uzten da. Lanean zehar zikloaren izaera hezgarriari emango zaion garrantzia dela eta, hezitzaile terminoa erabiliko da, nahiz eta sare publikoan urte biko gelan aritzeko maisu-maistrak izan behar diren.

Judit Falkek (2011) dioten moduan hezitzaileen proposamenaren muina eskola atsegina izanik, hauek jauzi txiki bat egin beharko lukete bere jarduteko moduan, izan ere, beraien helburua familiekiko giltzarri duen eskola-proiektua proposatzea izan beharko litzateke. Ondorioz, termino berri bat erabili behar da ikuspegia erabat aldatzen duena, **etxekotze prozesua** hain zuzen, zeinen atzean haurraren hezkuntzan parte hartuko duten guztien elkarlana dagoen, umeari eskolatzearen ahalegin guztia eskatu beharrean.

Beraz, etxekotze prozesua hurrengo litzateke: haurraren hezkuntzan parte hartzen duten pertsona guztien elkarlanari esker, haurraren eskolatzea errazteko asmoz sortutako errespetuzko giro lasai eta atsegina, haur bakoitzaren premiak ase ahal izateko (Febrer eta Jansà, 2011). Prozesu honen amaieran, haurra eskolako espazioan eta hezitzaileekin seguru eta eroso dagoela igarri eta zenbait aldaketa eginda ere lasai jarraitzen duela sumatu beharko litzateke, haurrak jolas egiteko ekimena erakutsi beharko luke, eskolako gainerako hurrekin eta helduekin gogo onez harremandu eta zer nahi duen eta zer behar duen beldur gabe adierazi.

Aurretik esandako guztia kontuan hartuta, jarraian etxetik eskolarako bidea errazteko, haur bakoitzaren sufrimendua arindu, premiak ase eta bere jakin-min, garapen kognitibo eta

ikaste prozesuari bide emateko, errespetuzko giro lasai eta atsegina lortzen laguntzea helburu duen gida bat proposatzen da.

## **2. ATXIKIMENDUAREN ERAKETA PROZESUA**

*“Un niño que sabe que su figura de apego es accesible y sensible a sus demandas tiene un fuerte y penetrante sentimiento de seguridad, que lo alienta a valorar y continuar la relación”* John Bowlby

Haurra eskolan hastean sentitu dezakeen larritasuna ulertzeko ezinbestekoa suertatzen da atxikimendua zer den eta nola eratzen den azaltzea. Izan ere, haurra haur eskolara joaten hasiko da bere atxikimendu-irudiarekiko lotura biziena garatzen ari den unean bertan. Honek haurrengan nahasmendu eta inseguritate itzela sorraraziko du prozesua ez bada ondo egiten.

Atxikimendua “maite edo gogoko den zerbaiti edo norbaitekiko lotura edo sentimenduzko erlazioa” da (Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa). Bowlbyren arabera (1989) atxikimendua haurra eta pertsona heldu baten artean garatzen den lotura afektibo eta emozionala da, bien arteko interakzioari esker garatutakoa, elkarrekin egoteko beharra eta nahia sortarazten duena eta bere berehalako helburua hurbiltasuna eta segurtasuna bilatzea eta mantentzea dena.

Lotura esanguratsu honi esker, alde batetik, haurrak bizirik irauten du izan ere haurrak bere beharrak transmititu edota komunikatzen ditu eta helduak behar horiei erantzun desberdinak ematen dizkio haurraren ongizatea bermatze aldera. Haur batek ezin izango bailuke bizi beste batek zaindu ezean, hau da, atxikimenduari esker umeak arriskuak ekidin eta beharrezko zaintzak jasotzen ditu. Beraz atxikimenduaren funtzio objektiboa, biziraupena ziurtatzea litzateke (López, 1998).

Bestetik, atxikimenduzko loturak dakarren hurbiltasunari esker haurrak segurtasuna bereganatzen du. Haurra seguru sentitzen da atxikimendu-irudia hurbil duenean eta pertsona horrengandik banatzean, aldiz, larritasuna edo sufrimendua sentitzen du. Haurra seguru sentitzen denean, ingurua esploratuko du, izan ere seguru sentituz gero, berezko duen jakin-mina nagusituko da esploratzen hasteko edo jarraitzeko. Gainera ingurunea aztertzeak eta ezagutzeak, burmuinaren garapen egokia ere ahalbidetuko du, haurrak konexio berriak eraikiko baititu, inguratzen duen testuinguruaren irudikapena sortuz.

Hala ere, atxikimendua gauzatzeko ez dira bi pertsona bakarrik behar, baizik eta bi pertsona hauen arteko harremana afektuzkoa eta aktiboa izatea, aktibotasun hau aldebikoa izanik.

Etologiaren arabera, haurrak jaioberritan helduentzat erakargarriak diren zenbait ezaugarri fisiko ditu (aurpegi biribila, sudur txikia, begi handiak, masail beteak, bekoki zabala,

etab.) hauen zaintza eta babesa eragiten dutenak (Lorenz, 1976). Gainera, haurra oso txikitatik helduak eskaintzen dizkion estimuluen bilatzaile aktiboa da, helduaren aurpegiarekiko interes handia erakusten du. Bestalde, haurrak zaintzailearen gertutasuna eta kontaktua lortzeko eta bere betebeharrak adierazteko baditu zenbait baliabide: negarra eta irribarrea, plazeraren eta sufrimenduaren adierazleak, azken hauek bizitza afektiboaren mutur biak (Wallon, 1985). Negarraren bidez oinarrizko zenbait behar ase gabe daudela adieraziko du eta irribarrea, aldiz, gozamenaren adierazle izango da gehienetan. Honetaz gain, haurrak kanpoko estimulu zehatzei esker ukimena edota kontaktua errazten duten zenbait erreflexu jarriko ditu martxan, zurgatze erreflexua adibidez. Hauetariko gehienak apurka eta erabiltzeari esker borondatezko portaerak bihurtuko dira, haurrak hauen bitartez biziraupenerako behar duen kontaktua eta ondorioz segurtasuna bereganatuko baititu.

Beste alde batetik, atxikimendu irudiak bere portaerei esker atxikimenduaren garapena bultzatuko du, haurrari beharrezkoa duen kontaktu fisikoa bermatuko dio laztanduz, besarkatuz, musukatuz eta hainbeste erantzunen bitartez. Gainera atxikimendu irudiak ezinbesteko diren zenbait ezaugarri izan behar ditu haurraren segurtasuna sustatzeko: sentiberatasuna, egonkortasuna eta jarraikortasuna. Atxikimendu irudia gai izan behar da haurraren portaera eta egoera emozionala aztertzeko eta honi beharrezkoa den erantzuna emateko. Bestalde, atxikimendu irudia eskuragarri egon behar da une oro, hau da, haurrak bidaltzen dizkion seinaleei erantzuteko prest. Seinale sistema hori ondo ulertzeko elkar ezagutza ezinbestekoa da. Honek haurraren eta hezitzailearen arteko lotura sakonagoa garatzeaz gain, oreka eta ongizatea ekarriko du. Dena den, harreman kalitate hau bakar bakarrik pertsona zehatz batzuekin gauzatu daiteke.

Atxikimenduaren garapenari dagokionez, ondorengo lau fase hauek bereiz daitezke:

1. Fasea: Pertsonetikiko orientabidea baina zaintzaileen irudia antzeman gabe (0-3 hilabete): Aldi honetan zehar, haurraren jarrera biziraupenerako ezinbestekoak diren eta genetikoki baldintzatuta dauden erreflexuetan oinarritzen da. Irribarrearen, negarraren eta begiradaren bitartez, haurrak besteen arreta erakartzen du; eta aldi berean, beste pertsonen estimuluei erantzuteko gai da. Gainerako gizakiekin kontaktu fisikoa bilatzen saiatzen da. Fase honetan, amarekiko oinarrizkoa den errekonozimendu sensoriala agertzen da. Amaren ahotsarekiko lehentasuna erakusten du dagoeneko atxikimendu loturarik erakusten ez badu ere. Aldi honetan, haurraren eta amaren arteko lehen moldaketa eta sinkronizazio interaktiboa ezartzen da. Hau da, haurraren erritmo biologikoak kontuan hartuta, heldua haurraren jokabidera moldatzen da, modu honetan elkarrekintza erraztuz eta aldi berean indartuz.

2. Fasea: Familia irudiekin elkarrekintza pribilegiatua (3-7 hilabete): Bigarren fase

honetan, haurra atxikimendu-irudia antzematen hasten da. Horren adierazle dira haurrak amari zuzentzen dion irribarrea eta bera aurrean dagoenean umeak egiten dituen hotsak. Gainera, haurrak fase honetan ama desagertzean negar egiteko joera du, agertzean lasaitu egiten delarik. Hala ere, oraindik ez ditu arrotzak errefusatzeko, hauen zaintzak egokiak izanez gero gustura onartuz. Etapa honetan argi eta garbi antzematen da haurraren eta atxikimendu irudiaren arteko elkarrekintza sinkronizatua. Heldua gero eta hobeto ulertzen ditu umearen mezuak, honen erritmoetara moldatzen da eta gai da bere erantzuna hauetara moldatzeko umearen atentzioa bereganatuz. Bien arteko sinkronia segurtatzen den heinean, gero eta aseago sentitzen dira haurra eta heldua. Hori dela eta, aldi honetan haurrak gai dira atxikimendu irudiaren irudikapena egiteaz gain, honen jokabidearen irudikapena ere egiteko.

3. Fasea: Atxikimendua eta arrotzenganako beldurra (8-12 hilabete): Aldi honetan, amarekiko atxikimendu eraketa gertatzen da. Haurrak aldi honetan atxikimendu irudierekiko lehentasuna erakusten du; honen adierazle da haurrak aldi honetan erakusten duen banatzearen larritasuna. Atxikimendu irudiaren desagerpenak haurraren aztoramendua sortarazten du eta atxikimendu irudiaren eskuragarritasunak, aldiz, haurraren esplorazio joera martxan jartzen du. Bestalde, aldi honetan, haurrak ezezagunarekiko edo arrotzarekiko beldurra erakusten du.

4. Fasea: elkarrenganako harremanen garapena (12 hilabete - 3 urte): Atxikimenduzko lotura eraturik, haurrak nolabaiteko independentzia bereganatuz joango da garatutako zenbait gaitasunei esker. Fase honetan haurrak bere atxikimendu-irudia irudikatze gaitasuna izango du, aurreko fasean sentitzen zuen larridura gutxituz. Gainera, haurrak adin honekin hizkuntza garatuko duenez, ematen zaizkion mezu desberdinak ulertzeko gaitasun handiagoa izango du.

Laburbilduz, atxikimendu harremanak haurrari eskaintzen dion segurtasunari esker, haurra gizarteratu egiten da, izan ere, Bowlbyk (1984) adierazi zuen bezala:

La provisión por parte de ambos progenitores de una base segura a partir de la cual un niño o un adolescente puede hacer salidas al mundo exterior y a la cual puede regresar sabiendo con certeza que será bien recibido, alimentado física y emocionalmente, reconfortado si se siente afligido y tranquilizado si está asustado (24 or.)

Gainera, R. Spitzek 1945an egindako ikerketa bati esker, atxikimendurik garatzen ez duten haurrek ospitalismoa pairatzen dutela deskubritu zen, hots, “gabezia afektiboaren eraginez, mailaka ezartzen den egoera fisikoaren eta emozionalaren aztoramen sakona” (Psikopatologiako Hiztegia, 2002, ) Beste era batera esanda, normalak jaiotako haurrak ez dira normal garatu, baizik eta betirako atzerapenak pairatuko dituzte.



### **3. BANAKETAGATIKO LARRITASUNA**

Gure XXI. mendeko gizartean haurtxoak 4 hilabetetatik hasten dira haur eskolara eramanak izaten. Haur eskolan hasten den haurra, dena delako adina izanik, atxikimendu irudiarrekiko lotura garatzen ari dela kontuan hartuta, testuinguru ezagunetik aldentzea berarentzat berria den ingurune berri batean jardutea zaila suertatuko zaio, zenbait kasutan haurraren banaketagatiko larridura (Jauregizar, 2013) bezala ezagutzen dena agertuz.

Banaketagatiko larritasuna umeei beraien atxikimendu-irudietatik banatzean pairatzen edo jasaten duten estutasunari, ezinegonari, tentsioari edota beldurrari deritza (Jauregizar, 2013). Izan ere, haurrak bere segurtasun iturria galtzen du zaindu eta babesten duen pertsonarengatik banatu behar denean.

Haurrak ingurune berria den haur eskolan ematen dituen lehenengo aldietan, erresistentzia sendoa erakutsiko du: negar egingo du, ez du kontsolamendurik aurkituko eta alde-egiteko joera erakutsiko du bere ama agertuko denaren itxaropenean. Haurrari emozioak gainezka egingo dio oraindik ez baitauka gaitasunik emozioa erregulatzeko eta modu egokian bideratzeko (Wallon, 1985).

Gainera, haurrak zuzenean komunikatzeko dituen baliabideak oraindik oso eskasak direnez, bere sufrimendua ez du soilik negarraren bidez adieraziko. Haurrak bere jokabidearen bidez transmititzen dituen seinaleak ere kontuan hartu behar dira. Nutrizio eta loaldi arazoak ohikoak izan ohi dira aldi honetan eta baliteke portaera motorean eta jolasean ere nahasmendua agertzea (Falk, 1968).

Hori dela eta ezinbestekoa da haurraren eskolatzea erraztuko duen planteamendu bat sortzea: etxekotze prozesua (Febrer eta Jansà, 2011). Era honetan, hezitzailearen eta gurasoen elkarlanari esker, haurrak etxetik eskolarako bidea ahalik eta erarik atsegingarrienean eta lasaienean egingo du.

### **4. ETXEKOTZE PROZESUA**

Etxekotze prozesua beraz, orain arte azaldu bezala, haurraren ongizatea bermatzeko eta honen eskolatzea errazteko asmoz, haurraren hezkuntzan parte hartuko duten pertsona guztien elkarlanari esker sortutako giro lasai eta atsegina litzateke. Hau da, hezitzailearen eta haurraren gurasoen edo eta familiaren arteko komunikazio eta elkarlanari esker, zenbait kasutan senitarteko bat izan beharko baita haurraren eskolatzeaz arduratuko dena gurasoek ez baitute aukera hori izango zenbait arrazoi direla medio, haurraren hezkuntza proiektua norabide beretik joango da, honek haurrari egoera berriari aurre egiteko beharrezkoa den segurtasuna eskainiz.

Prozesu honek denbora eskatzen du orokorrean, denbora haur bakoitzaren arabera izanik. Izan ere, haurra ezinbestekotzat jotzen duen atxikimendu iruditik banatu egin

beharko da honek dakarren ineguritatea gaituz. Prozesua une desberdinetan banatuko da (Febrer eta Jansà, 2011): eskolarekiko lehenengo kontaktu bezala ezagutzen den izen-ematea; batzarrak, hau da, etxekotze prozesua garatzeko ezinbestekoa den guraso-hezitzaileen arteko elkarrekintza; eta azkenik eskolako lehenengo egunak.

#### **4.1. ESKOLAREKIKO LEHENENGO KONTAKTUA: IZEN EMATEA**

Gurasoek beraien seme-alaben hezkuntza prozesuan hainbat erabaki konplexu hartu beharko dituzte, horietako bat beraien hainbeste maite duten seme-alaba zein zentrorra bidaliko duten delarik. Erabaki honek hamaika zalantza eragiten ditu, izan ere, beraien seme-alaben zaintza eta hezkuntza ezezaguna den pertsona edota erakunde baten esku utzi beharko dute.

Honetarako, Febrer eta Jansàren (2011) arabera, guraso batzuk inguruan dituzten ikastetxe eta haur eskolak bisitatu edo hauen inguruan galdetu eta gero eta hauetako bakoitzak eskaini diezaiokena aztertu eta gero, hau da, zentroak nolabait ezagutu eta gero, beraien behar eta eskakizunetara hobeto moldatzen den zentroa zein den erabakiko dute. Beste batzuk aldiz gertutasuna edo ospea lehenesten dute.

Behin hori eginda, izena emateko unea helduko da. Une honetan familiak eskola hori beraien seme-alaben eskola izango dela jabetuko dira eta baita eskolaren lehen irudia ere hartuko dute. Ondorioz lehenengo aurreikuspenak sortuko zaizkie. Hau da, une honetan etxekotze prozesua hasiko da. Une honetatik aurrera, segurtasunez dakite, beraz, zein izango den beraien seme-alaben eskola eta ondorioz galdera ugari sortuko zaizkie, egingo diren batzarretan zehar argitzeko aukera izango dutenak.

#### **4.2. EZINBESTEKO INFORMAZIO TRUKAKETARAKO UNEAK: HAUR ESKOLAKO BATZARRAK**

Arestian esan bezala, etxekotze prozesuaren helburua aurrerantzean haurren hezkuntzan parte hartuko duten pertsona guztien artean loturak ezartzea izanik, hezitzailearen eta guraso-familiaren artean ezinbestean finkatu behar da harremana haurren hezkuntza prozesuan eragile biek noranzko berean egiteko. Hauxe dela eta, ikasturtea hasi aurreko eta bitarteko batzarrak oso emankorrak izango dira hezitzailearen eta gurasoen artean komunikazioa eta elkarrekiko begirunea sustatzeko. Era honetan, eskolak familiaren dinamikari jarraipena emango dio, haurri segurtasuna eskainiz.

Ikasturtean zehar komenigarria da hainbat batzar egitea. Ikasturtea hasi aurretik taldeko batzar bat eta baita banakako beste bat egin beharko lirateke. Taldeko batzarrean eskolako bizitzaren nondik-norakoak eta gurasoen zalantza nagusiak argituko lirateke, eta banakakoan, aldiz, haur bakoitzaren inguruan beharrezko informazio guztia trukatuko litzateke. Aurrekoari jarraituz, ikasturtean zehar gutxienez beste bi batzar egitea

komenigarria litzateke, lehenengoa etxekotze prozesuaren balioespena egiteko eta bigarrena ikasturte amaieran ikasturte bukaerako balioespena (Febrer eta Jansà, 2011).

### **Familiekin taldeko lehen batzarra**

Familiekin egiten den taldeko lehen batzarra ekainean egiten da. Batzar honetan hurrek eskolan eramango duten bizimoduaren nondik-norako guztiak azaltzen dira. Gurasoei argi uzten zaie beraien seme-alabak bertan egingo dutena, zer non egingo duten, etxekotze prozesuan zehar parte hartuko duten pertsona guztiak nola moldatuko diren eta abar.

Gainera, normalean eskolan izena ematean orduantxe konturatzen dira familiak eskola hori beraien seme-alaben eskola izango dela, beraz, momentu horretatik aurrera, normala den bezala, gurasoei hainbat galdera etortzen zaizkie burura. Izan ere, gehien maite duten pertsona eta honen hezkuntza eskola horren eskuetan utzi beharko dute. Beraz, lehenengo batzar hau galdera hauei erantzuteko ere erabili daiteke.

Beraz, lehen bilera honek noranzko bikoia izan behar du. Alde batetik, hezitzaileak gurasoei lehenengo eskola egunak nolakoak izango diren azaldu beharko die, gertatu daitekeena aurreratuz. Izan ere, gurasoak seguruago sentituko dira gertatuko dena eta egoera bideratzeko modua jakinez gero, hau da, gurasoak askoz ere seguruago sentituko dira beraien seme-alabak ondo zainduak izango direla sentitzen badute. Neurri batean, aurrerantzean umea berak burutu beharreko konfiantza prozesua, bere gurasoekin burutu behar da alde aurretik. Beste aldetik, familiak aukera izan behar dute beraien zalantzak galdetu eta argitzeko eta baita beraien aurreikuspenak eta beldurrak adierazteko, era honetan, eskolak familien sentimendua jasotzeko aukera izanez (Febrer eta Jansà, 2011).

Taldeko batzar honetan gomendagarria da gurasoei gehiegizko informazioa ez eskaintzen saiatzea. Beraz paperak, araudia, antolakuntza, etab. batzar honetatik kanpo geratzea gomendatzen da, gurasoek nekez gogoratuko baitute eman zaien informazio mordo hori. Gainera, honek batzarra noranzko bakarrekoa bilakatzea eragin dezake, hezitzailea elkarriketaren parte hartzaile bakarra bilakatuz.

Bukatzeko, batzar honen amaieran familiekin egingo diren batzarren datak adostuko dira. Horretarako hezitzaileak malgutasuna eskaini beharko die familiei eta posible den neurrian haien beharretara moldatu beharko da, era honetan familia eta haurra bilerara lasai eta patxadatsu etorriko direla ziurtatuko du.

### **Familiekin banakako lehen batzarra**

Familiekin egiten den lehenengo batzarri dagokionez, komenigarriagoa da irailean kurtsoa hastarekin batera egitea ekainean baino. Izan ere, baliteke haurrak udan zehar aldatu izana eta irakasleari ahalik eta informazio eguneratuena eskaintzea komeni da.

Banakako batzar hau aukera ona suertatzen da gurasoekin eta haurrarekin loturak sortzen joateko. Beraz, haurra ere presente egon beharko da lehenengo batzar honetan. Kontuan hartuta betiere hezitzaileak zein gurasoek kontu handiz ibili beharko liratekeela esaten dutenarekin eta gogorra den zerbait esan beharko balitz umea aurrean ez dagoen beste tarte baterako utzi beharko luketela.

Komenigarria da lehenengo batzar hau gelan bertan egitea, era honetan gurasoak eta haurrak eguneroko ingurunea ezagutuko dute eta hezitzaileak haurra ingurune horretan behatzeko aukera izango du. Alde batetik, haurrari jolasean eta esploratzen ikusiko zaio, haurraren jarrerari buruzko lehenengo datuak eskuratuz; eta beste aldetik, haurraren eta gurasoaren arteko erlazioa nolakoa den ikusteko aukera ere izango da. Hau da, batzar hau oso egokia da haurra bera ezagutzeko eta baita etxean bizi duen giro afektiboa, fisikoa eta soziala ere ezagutzeko (Febrer eta Jansà, 2011).

Batzar honetan, kontuan hartuta gurasoak beraien seme-alabak hobeto ezagutzen dituzten pertsonak direla, aukera eman behar zaie beraien ustez haien seme-alabari buruz duten informazio gehien azaltzeko. Baina irakasleak ere, kontuan hartu behar du zein den berak behar duen informazioa, izan ere, bere lana ondo egin ahal izateko, ezinbestekoak ditu zenbait informazio: haurrak zer, noiz eta nola jaten duen, noiz eta nola egiten duen lo, zein jostailu duen gogoko, beraz berarentzat garrantzitsua den informazioa zuzen gurasoengandik jaso ezean hainbeste galdera zehatz luzatu behar izango dizkie. Informazio elkartruke honi esker, gurasoek beraien seme-alabei buruz nola hitz egiten duten ikusteko aukera ere izango du, hauen atzean ezkututzen diren sentimenduak eta emozioak antzemanaz.

Banakako lehenengo batzar hau informazioa elkartrukatzeko eta lehenengo loturak sustatzeko oso erabilgarria izateaz gain, haurrak eskolan emango duen ordutegia familiarekin batera erabakitzeke une aproposa da eta baita heziera adosteko eta hezkuntza-proiektua egituratzen hasteko ere.

Hezitzailearen jarrerari dagokionez, irakasleak entzute jarrera izan behar du, gurasoen ekarpenak baloratuz, izan ere, hauek bereak bezain garrantzitsuak dira, gurasoak informazio iturri paregabea baitira, azken finean, haurraren tutoreak dira horrek dakarren guztiarekin. Gainera, hezitzaileak lankidetzara jarrera transmititu beharko du, haurrarentzako eta gurasoentzako une zail honen ibilbidean denak batera ibiliko direla argi utziz, izan ere, prozesu honen nondik-norakoak denon artean adostutakoak izan behar dira. Komenigarria da ere irakasleak batzar honetan aurreiritziak alde batera uztea, haur bakoitzak bere prozesua bizi behar baitu. Bukatzeko, irakasleak zintzotasuna erakutsi

beharko du eta baita ere lexiko erraza eta argia erabili beharko du, era honetan gurasoak dena ulertu dutela ziurtatuz.

Topaldia antolatzeke erari dagokionez, lagungarria da hezitzailearen eta gurasoen artean distantzia handirik ez egotea eta komunikazioa eragozten duten oztopoak kentzea, era honetan suertatzen den harremana pertsonalagoa izanez, izan ere, tartean mahai bat egoteak harremana hozten du, irakaslea eta gurasoak urrundu egiten ditu. Beste kontu garrantzitsu bat batzar hauetan perturbazioak ekiditea da, familiei eta hurrei eskaini beharreko unea da eta ez beste inori. Bukatzeko, datuak batzarra amaitzerakoan jasoko dira, era honetan elkarrizketan zehar arreta osoa eskaini ahal izango zaie elkarrizketatuei eta haurrari.

### **Kurtsoan zeharreko batzarrak**

#### Eguneroko hartu-emanak

Eskolako sarrera eta irteera uneak oso erabilgarriak dira gurasoekin edo haurraren zaintzaz arduratzen den pertsonarekin informazio informala trukatzeko. Hauen helburu nagusia gertakari zehatzei buruzko informazioa elkartrukatzea, gurasoek haurren eskolako jarrera eta jokabideari buruz berri izatea eta irakasleak haurraren etxeko jarrerari buruzko informazioa lortzea da.

Aurrekoa kontuan hartuta, hauek lirateke une hauetan jorratu beharreko informazio motak:

- Eguneko kontuak
- Loarekin lotutako informazioa
- Elikadurarekin lotutako informazioa
- Osasun eta garbitasun kontuak

Hezitzaileak ezin du ahaztu une hauetan gehienetan haurra egoten dela presente eta beraz bere lekua eskaini behar zaiola haurrari, ahal den heinean elkarrizketaren parte hartzaile bilakatuz.

Une hauek, aurretik esan bezala, oso emankorrak diren arren, badaude zenbait gai espazio eta denbora berezia behar dutenak, hau da, tratamendu formala eskatzen dutenak.

#### Gurasoekin adostutako batzarrak

Normala den bezala, badira zenbait gai eta informazio ezin direnak sarrera eta irteera uneetan eman. Beraz, komenigarria da hezitzailea ikasturtea hastean zenbait data buruan izatea gurasoekin batzartzeko eta baita prest egotea gurasoek hala beharrez gero beraiekin biltzeko, izan ere, hauek beraien seme-alaben hezkuntza proiektuaren eragile garrantzitsu bat dira.

Hauek dira gutxienez egin beharreko batzarrak: lehen jarraipen batzarra, bigarren jarraipen batzarra edo kurtso amaierako batzarra.

- Jarraipen batzarra:

Urtarrilaren erdialdean eta amaiera aldera egitea komeni den batzarra da, umeen bilakaerari eman beharreko astia eman ahal izateko. Bilera honen helburua haurren etxekotze prozesuaren eboluzioa aztertzea eta hurrengo hilabeteak edo pausuak planifikatzea eta adostea da. Beraz, alde batetik gurasoek etxekotze prozesua nola bizi izan duten azaltzeko aukera izango dute eta baita haurrak nola bizi izan duen ere, izan ere, beraiek ondo ezagutzen dute haurra eta ondo dakite hau nola sentitu izan den prozesu honetan zehar. Eta bestalde, hezitzaileak berak egindako behaketan oinarrituz, haurraren bilakaeraren berri emango die.

Horrez gain, hurrengo hilabeteetan jarraituko duten plangintza diseinatuko dute guraso eta hezitzailearen artean. Plangintza hau ume bakoitzaren beharren arabera diseinatuko da.

- Bigarren jarraipen batzarra: Kurtso amaierako batzarra

Ekainaren lehenengo hamabostaldian egiten den batzarra da hau. Batzar honen helburua gurasoei haurrak izan duen bilakaera azaltzeaz gain, gurasoek ikasturtea nola bizi izan duten plazaratzea da.

Beraz, hezitzaileak ikasturte hasieratik emandako aldaketa nabarmenenak komentatuko dizkie gurasoei eta baita ikasturtean zehar bizi izandako une garrantzitsuak gogora ekarriko ditu. Honetaz gain, gurasoek eskola urtea nola bizi izan duten komentatuko diote hezitzaileari. Era honetan, hezitzaileak nolabaiteko informazioa jasoko du hurrengo urteari begira, bere hezkuntza praktika hobetze aldera.

### **4.3. LEHENENGO ESKOLA EGUNAK**

Batzarretan zalantza nagusiak argitu eta haurraren inguruko informazio gehiena trukatu eta gero, haurrarentzat eta prozesu honetan haurra lagunduko duten pertsonentzat zaila izango den unea helduko da. Haurra mundua deskubritzeko eta ondorioz ezagutza eraikitzeko segurtasuna bermatzen dioten gurasoengandik banatu beharko da berria den ingurune batean murgilduz, honek hasieran haurraren ingurunean inseguritatea sortuz.

Hona hemen haur bakoitzaren berezitasun eta erritmoetara moldatuz, haurrei hezitzailearekin erlazio afektibo sendoa eraikitzen lagundu, ongizatea bermatu eta lehenengo eskola egunetako deskonfiantza eta deserosotasuna arintzen lagunduko dien Budapesteko Pikler-Lóczy Institutuko Haur Eskolan oinarritutako denbora antolamenduaren proposamen bat (Egokitzapen aldia haur eskolan, 2010).

Lehenengo eskola egun hauetan, ezinbestekoa izango da haurrak une oro gertatuko zaionaren berri izatea, era honetan haurra seguruago sentituko baita. Antolamenduari dagokionez, haurrak banan-banan helduko dira gelara beraien guraso-familiaz lagunduta eta hezitzaileak haur bakoitzari gelako atarian harrera egingo dio. Ondoren, haurra eta hau

laguntzen duen pertsona esanguratsua gelara sartuko dira, bertan azkenengo hau beraientzat atondutako txoko batean eseriko delarik, honi esker haurrak berarentzat berria edo ezezaguna den ingurua behatzen hasteko aukera izango du, berarentzat segurtasun iturri den pertsona esanguratsua bertan egongo baita eta uneren baten ziurtasun falta izanez gero, harengana jotzeko aukera izango baitu, bere burua birziurtatuz. Honetaz gain, kontuan hartuta ikasgela bakoitzean 11-13 ume bitarte egon ohi direla, komenigarria da prozesu honetako lehenengo bi asteetan bi txanda bereiztea, lehenengoa goizeko lehenengo orduan eta bigarrena jarraian, ume bakoitza ondo zaindua senti dadin.

**Lehenengo eguna:**

Haurra bere etxekotze prozesuan zehar lagunduko duen senitartekoa gelan berarentzat atondutako izkina batean egongo da, haurrak egiten duena behatzen eta honi babeska eskaintzen.

Kontuan izanik haurra ingurune berri batean egongo dela eta honek sortaraziko dion urduritasuna eta mesfidantza, baliteke haurra senitartekotik urruntzeko beharrik ez aurkitzea edo nahi ez izatea, kasu hauetan senitartekoek ez dute haurra behartuko. Hezitzailea behatzen arituko da une oro bai haurra jarduera autonomoan arituko den bitartean bai haurraren eta bere pertsona esanguratsuen arteko erlazioa. Eguna amaitzean behatutakoa bere egunerokoan erregistratuko du. Lehenengo egun honen iraupena printzipioz ordu batekoa izango da, hala ere haur bakoitzaren jarrera kontuan hartuko da iraupena laburtu edo luzatzeko. Hots, haurra eroso eta bere jolasean murgilduta ikusiz gero denbora luzatu egingo litzateke haurraren jarduera ez mozteko eta haurren bat, aldiz, deseroso sentitu eta negarrez hasiz gero malgutasunez jokatu beharko litzateke aurreko kasuan bezala eta haurra ikasgelatik atera eta joaten utziz.

**Bigarren eguna:**

Lehenengo egunean bezala, haurrarentzat esanguratsua den pertsona gela barruan egongo da beraientzat atondutako espazioan. Hezitzaileak aurreko egunean gertatutakoaren arabera jokatu du, agian haurren bat prest egongo da berarekin elkarrekintzan hasteko eta nolabaiteko erlazioa eraikitzen hasteko. Egun honetan haurrak ordu bat eta erdi inguru egongo dira gelan, hala ere, aukera dago iraupen hori laburtzeko haurra oso urduri eta deseroso sentituz gero eta baita iraupena luzatzeko haurren bat leku berri honen esplorazioan eroso sentituko balitz. Hezitzaileak egun honetan zehar gertatutakoa esploratu eta bere egunerakoan erregistratuko du aurreko egunean gertatutakoarekin alderatuz.

**Hirugarren eguna:**

Hezitzaileak haur bakoitzaren egoera eta jarrera aztertu eta haurra prozesu honetan laguntzen duen pertsona esanguratsuekin hitz egin eta gero, haur bakoitzak gelan eman beharreko denboraren iraupena luzatu egingo dute. Egun honetan senitartekoak gelan beraientzat atondutako txokoan egongo dira oraindik, ez baita ahaztu behar beraiek gelan egotea haurrentzako segurtasun iturri dela eta honek eurentzat berriak diren pertsonak eta ingurunearekin erlazionatzea errazten duela. Denbora luzaketa honekin baliteke haurren bat pixoihalaz aldatu behar izatea. Kasu honetan, senitartekoa izango da pixoihalaren aldaketaren ardura hartuko duena eta hezitzaileak bitartean behatu egingo du nola egiten dion. Une honetan zehar senitartekoak gertatzen den guztiaren berri emango dio hezitzaileari, detaile txikiena ere ahaztu gabe. Era honetan hezitzaileak etxean zer ohitura dituzten jakiteko aukera izango du, izan ere, ohitura hauekiko errespetuak haurraren segurtasuna ahalbidetuko du, gertatuko dena aurreikusteko gai izango baita.

**Laugarren eguna:**

Haur bakoitzaren egoera aztertu eta gero, baliteke haurren bat prest egotea etxekotze prozesuan laguntzen duen pertsona esanguratsua gelatik irteteko. Beraz, hezitzaileak eta senitartekoak azkenengo hau gelatik noiz eta nola irtengo den erabakiko dute eta baita tarte honen iraupena. Kontuan hartuta lehenengo aldia dela, komenigarria da laburra izatea gehienez hamar bat minututakoa. Behin aipatutakoa adostu dutela, haurrari argi eta garbi azalduko diote bere atxikimendu-irudia gelatik irtengo dela eta laster bueltatuko dela bere bila. Pertsona hau ez da inolaz ere gelatik irtengo haurra agurtu eta gertatuko dena azaldu gabe, izan ere, haurra bat-batean bere burua bakarrik ikusiz gero abandonatua izan delakoaren sentsazioa izango luke eta honek askoz ere inseguritate handiagoa sortaraziko luke berarengan. Esandakoa bete egingo da, hau da, haurrari hamar minutu baino ez direla izango esan bazaio, banaketa ez da iraupen hori baino luzeagoa izango. Gainera komenigarria da pertsona esanguratsua gelako atarian itxarotea, haurrari egoerak gainezka egingo balio, gelara bueltatzeko.

Bestalde, lehenengo banaketarako prest ez dauden haurrak aurreko egunetan bezala jarraituko dute egun batzuetan oraindik.

Egun honetan ere, pertsona esanguratsua izango da haurraren pixoihalaren aldaketaz arduratuko dena eta hezitzaileak behatu egingo du, haurraren ohiturak ezagutu eta etorkizunean hauetara moldatzeko aukera izanik.



**Bosgarren eguna:**

Hezitzaileak haur bakoitzaren egoera zein den aztertuko du hauek heldu baino lehen eta haurrak eskolara heltzean prozesuan laguntzen duen pertsona esanguratsuekin hitz egingo du, jarraitu beharreko bidea zein den elkar erabakitzeko.

Aurreko egunean beraien pertsona esanguratsutik lehenengo aldiz banatutako haurrak eta banaketa ondo eraman zutenak, gaurkoan tarte luzeago batez banatuko dira (hamar bat minutu gehiago), hots, ingurunean eroso sentitu zirenak, honekin elkarrekintzan aritu zirenak eta sufritu ez zutenak.

Bestalde, aurreko egunean oraindik beraien atxikimendu irudiarekiko banaketarako prest ez zegoen haurren bat, orain agian, prest egongo da eta beraz hezitzailea eta senitartekoak azkenengo hau noiz eta nola irtengo den eta iraupena erabakiko dute. Aurretik aipatu bezala, senitartekoek haurrei erabakiaren berri emango diete irten baino lehen.

Bosgarren egun honetarako egokia litzateke haurrak gelan emango duten denboraren iraupena bi ordutara luzatzea. Beraz hau kontuan hartuta, komenigarria litzateke haurrei hamaiketako bat eskaintzea, era honetan hezitzailearen eta haurren arteko elkarrekintza sustatuz.

**Seigarren eguna:**

Asteburuaren ondorengo eguna da hau, beraz, hezitzaileak kontuan hartu beharko du asteburuak eta errutinen apurketak haurrengan izan dezakeen eragina. Horregatik, bigarren asteko lehenengo egun honetan pasadan asteko errutina berdinak errepikatuko dira banan-banan, ahal den era berdintsuan.

Haurrak beraiantzako esanguratsua den pertsonarekin egongo dira gelan. Senitartekoak beraientzat atondutako espazioan egongo dira haurra behatzen eta haurrari ingurunearekin elkarrekintzan hasteko beharrezkoa duten segurtasuna eskaintzen.

Hezitzaileak egoera behatzen arituko da, bai haurrak jarduera autonomoan aritzen diren bitartean, bai haurrak beraien atxikimendu irudiarekin duten erlazioa ere.

Honetaz gain, hezitzaileak irteera berri bat adostu dezake senitartekoarekin eta beste egunetan bezala haurrak aldeztu haurretik jakinaren gainean egongo dira. Haurrak espazio eta gelakide berriekin erosoago sentitzen den heinean, irteera hauek gero eta luzeagoak izango dira.

**Zazpigarren eguna:**

Komenigarria da haurraren eta senitartekoaren arteko banaketaren denboraren iraupena luzatzen joatea. Izan ere haurrak gero eta erosoago eta seguruago sentituko dira espazio eta material berria arakatzen eta gainontzeko haurrekin jolasten, haurrak inguru berriari ohitzen hasiak dira eta beraz beraien segurtasuna gero eta sendoagoa izango da.

Bestalde, hezitzaileak pixoihalen aldatetari ekingo dio baldin eta haur bakoitza aldatzeko etxean dituzten ohiturak zeintzuk diren badakizki, izan ere, hauek errespetatuz gero haurra errespetatua dela sentituko du eta baita segurtasun handiagoa ere. Era honetan, haurren lehenengo eskola urteak erraztuko dituen hezitzailearekiko lotura esanguratsua garatzen hasiko da.

**Zortzigarren eguna:**

Aurreko egunean bezala, haurrak ingurune berrian gero eta lasaiago daudela eta beraien jarduera autonomoarekin gero eta gehiago gozatzen dutela kontuan hartuta, hezitzaileak eta senitartekoak hala erabakita, azken honek gelatik egingo dituen irteerak gero eta luzeagoak izango dira, 40 minutukoak gutxi gora-behera.

Aurreko egunean bezala hezitzaileak hartuko du haurrei zaintza egokiak eskaintzeko ardura, bere ohiturak errespetatuz eta bien arteko elkarrekintza sustatzeko errespetuzko giro lasai eta beroa eskainiz haurrari, zeinetan haurrak dituen beharrak asetu egingo dituen. Honek haurrari konfiantza emango dio eta ondorioz segurtasuna ere.

**Bederatzigarren eta hamargarren egunak:**

Bi egun hauetan, aurreko egunetan bezala, senitartekoak eta hezitzaileak gelatik egingo diren irteerak noiz eta nola egingo diren erabakiko dute eta pertsona esanguratsuak gelatik kanpo ematen duten tartearen iraupena luzatuz joango da. Izan ere, hurrengoko astean beste urrats bat emango da: pertsona esanguratsuak haurra gelara arte lagunduko du, bertan agurtu egingo du eta joan egingo da. Haurra gelan geratuko da hezitzailearekin eta gainontzeko haurrekin batera, eta gainera haur-talde osoa bildu egingo da.

Bi egun hauetan hezitzailea izango da haurren zaintzaz arduratuko dena, aurretik aipatu bezala, oso une emankorrak baitira haurren eta hezitzailearen artean konfiantza eta errespetua garatzeko eta baita haurra hezitzailearekin seguru sentitzeko. Bestalde, hezitzaileak haurren jarduera autonomoa behatuko du, beraiek izanik beraien prozesuaren jaun eta jabe eta hezitzailea aldiz prozesu hau erraztuko die.

**Hamaikagarren eguna:**

Aurretik esan bezala aste honetan urrats berri eta garrantzitsu bat emango da: senitartekoak jada ez dira gelan egongo haurrekin, hezitzailea eta haurrak baino ez dira egongo, eta gainera txanda bateko zein besteko haurrak elkarrekin bilduko dira.

Hirugarren asteko lehenengo egun honetan, senitartekoak haurra ikasgelaren ateraino eramango du eta bertan hezitzaileak harrera egingo die. Senitartekoak oraingo honetan ez dela gelara sartuko azalduko dio haurrari eta baita laster bueltatuko dela. Jarraian elkar agurtuko dute, musu elkarri emanez, edo beraien erara eginez, eta joan egingo da. Hezitzaileak eta haurrak senitartekoa agurtuko dute. Haurra prozesu honetan zehar larritu

egingo balitz eta negarrez hasi, hezitzaileak senitartekoa joan arte itxarongo du haurra lasaitzen hasteko, izan ere, une hau haurrarentzako mingarria da eta haurrak bere emozioa plazaratzeko eskubide osoa du. Haurrari negar egitea galarazteak gertatzen ari denari uko egingo geniolakoaren sentsazioa transmititzen dio haurrari. Haurrak une honetan behar duena sostengua eta babesa da.

Egun honen iraupena hezitzaileak eta senitartekoak biak batera hartuko duten erabaki bat da, biak norabide berean baitoaz haurraren hezkuntza prozesuan. Hala ere, kontuan hartuta honezkero haur gehienentzako ingurune berria ezaguna dela, egun honen iraupena ordu batekoa izango litzateke gutxi gora-behera.

Senitartekoa bueltatzean haurra nola egon den komentatuko zaio eta hurrengo egunean nola jardungo duten erabakiko dute.

#### **Hamabigarren egunetik hamabosgarren egunera arte:**

Hamaikagarren egunean erabilitako prozedura berdina erabiliko da, hots, senitartekoak haurra gelara arte lagunduko du, bertan agurtu egingo du eta haurra hezitzailearekin eta gainontzeko hurrekin geratuko da.

Hurrek ikasgelan emango duten denbora luzatuz joango da. Aproposena egunero 30 minutuko luzapena egitea izango litzateke gutxi gora-behera. Era honetan, aste bukaeran haurrak prest egongo lirateke goiz osoa gelan eroso egoteko, hau da, beraien jolasa garatzen eta sortzen jarduteko eta baita gainontzeko hurrekin zein hezitzailearekin elkarrekintzan aritzeko.

#### **Laugarren astea:**

Kontuan hartuta aurreko asteko helburua, hau da, haurrak ikasgela barruan hezitzailearekin eta ikaskideekin baino ez egotearena, aste honetan hori sendotzeaz gain, etxekotze prozesuan urrats berriak emango dira.

Alde batetik, hurrei espazio berriak esploratzeko aukera emango zaie, izan ere, aurreko asteetan estimulu larregi bizi izan dituzte espazio berri batean gustura egoteko moduan, honek gehiegizko aztoramendua sor dezake. Aste honetan lehenengoz, haurrak jolastokira edo atarira aterako dira eta bertan jolasteko aukera izango dute, hau da, inguru berri bat deskubritzeko aukera.

Bestalde, prozesu honetan, lehenengoz, hurrei jaten emango zaie eskolan, gelan bertan. Horretarako, oso presente izan behar da gurasoekin ikasturte hasiera izandako batzarra eta beraiek beren seme-alaben ohitura, gustu eta gaitasunei buruz esandakoa. Izan ere, hezitzaileak haurraren ohiturak errespetatu behar ditu, azkenengo hau seguru sentitu dadin. Beraz, haurrak etxean besoetan jaten badu, hezitzaileak besoetan jaten emango dio eta mahaian jaten badu, mahaian jango du.

Horrez gain, aste honetan haurra lotan jarriko dute siesta orduan. Horretarako, haurrak aurretiaz jakingo du bere ohea zein izango den eta, bere objektu pertsonalak bertan uzteko aukera izango du. Haurrak banan-banan oheratuko dira, hau ere momentu bikaina baita hezitzailearen eta haurraren artean azken honen etxekotze prozesua erraztuko duen segurtasun afektiboa eraikitzeko, haurrak eta hezitzaileak komunikatzeko aukera izango baitute, hezitzaileak haurrari beharrezko zaintzak eskainiz. Umeren batek bakarrik lo egiteko zailtasunak izango balitu, hezitzailea bere ondoan geldituko litzateke honek loa hartu arte. Hortaz, umea lasai dagoenean hurrengo umea oheratzen da. Gomendagarria da, txanda hauek errespetatzea; hala ere, egunen baten umeren bat oso nekatuta egongo balitz txanda aurreratzeko aukera ere badago. Kontuan hartuta haurrak goizean goiz joaten direla haur eskolara, lo kuluxka eta gero, senitartekoa bertan egongo da haurraren zain. Haurrak honen jakinaren gainean egongo da eta esnatu bezain pronto pertsona esanguratsua joateko aukera izango du.

Laburbilduz, haurrari lehenengo eskola egun hauetan eskatzen zaiona oso zaila den zerbait da. Bere burua ziur sentitzen eta eroso sentitzen duen inguru batetik, ezezaguna den beste batera igarotzea hain zuzen. Beraz, haurrari denbora nahikoa eman behar zaio inguru berri hau berea egiteko eta bertan eroso eta ziur sentitzeko ezinbestekoak izango dituen erlazioa eraikitzeko. Lehenengo bi asteetan haurrak ingurune berria ezagutuko du eta honetan esploratzeko aukera izango du, bertan berarentzako segurtasun iturri den pertsona esanguratsua egongo baita, nahiz eta aste hauetan pertsona hau gelatik irtengo den aurretik adostutako zenbait unetan. Hirugarren astean, aldaketa garrantzitsu bat emango da, pertsona esanguratsua jadanik ez da gelan presente egongo, honek haurraren nolabaiteko larritasuna sorraraziz. Eta azkenik, haurrari zenbait eremu berri erakustez gain, bertan jan eta lo egingo du. Hala eta guzti ere, taldea osatzen duten ume kopurua eta ezaugarrien arabera proposamen hau etengabe egokitu behar da.

#### **4.4. ZAILTASUNAK**

Gurasoekiko banaketa une hau, bereziki zaila bihurtzen dituen zenbait ezaugarri ditu, etxekotze prozesua eraginkorra izan dadin alde aurretik kontutan hartu beharko liratekeenak: hezitzailea bera, espazio berria, eskolara joateko grina eta banaketaren betirako izaera (Kintela, 1987):

- Haurrak hezitzailea heldu arrotz bezala ikusten du, ezagutu ezean mehatxuzkoa eta erasotzaile moduan jotzen duena alegia. Haurrak hezitzailea bere atxikimendu-irudiaren partidaren konplize jo dezake.

Aldez aurretik banatzeko prozesua ez bada urratsez-urrats landu, haurrak bere pertsona esanguratsuekiko banaketaren errua egozten dio hezitzaileari, hau da, bere egoeraren

errudun gisa hartzen du. Horregatik haurrak hezitzailearekiko mesfidantza erakusten du eta honek bere jarduera autonomoa oztopatzen du, izan ere, gelako jaun eta jabe atxikimendu irudiaren ordezkoko ezezagun hori da eta haurrak ez du behar besteko segurtasunik horrekin lotuta dagoen ingurune berria esploratzeko.

Hala ere, haurrek pertsona arrotzarekiko kidetasun jarrera erakusten dute normalean, baldin eta honek harreman ludiko edo gertutasun eta errespetuzko bat hasten badu, adibidez, haurrentzat erakargarria izan daitekeen objektu bat eskaini edo etxetik dakarren bat gelara sartzen uzten badio. Objektu hau eustek bere sufrimendua arindu egingo du eta.

- Haurrak espazio berri bat aurkitzen du, itxia eta ezezaguna suertatzen zaiona, hots, manipulatzeko eta deskubritzeko eremu zaila bilakatzen dena, haurrak bere burua inseguru sentituko baitu. Ondorioz, haurra ez da gai izango ingurune berri hau esploratzeko, berarentzako oinarrikoa den beharizan bat ez baitu asetuta izango: ezagutzarekin sakon lotutako segurtasuna.

Honetarako, haurrari ahalik eta erakargarriena den ingurune bat eskaini beharko zaio, zeinetan jostailuak haurraren adinera eta garapenera egokituta dauden eta proposatzen zaizkion jarduerak bere erritmorra moldatzen diren. Gainera hezitzailearekin izango dituen arreta pertsonalerako uneak ere, lagungarri suertatuko dira haurra eta hezitzailearen artean lotura afektiboa apurka-apurka garatzen joateko, honek haurrak gelan aritzeko ezinbestekoa duen segurtasunarekin hornituz (Falk, 1968).

- Eskolara joatea ez da umearen iniziatiba, lehenengo eskolatze goiztiarra sozialki aurreikusita eta zenbait kasutan derrigortua dagoen zerbait da. Haurra eskolara joango da horretarako adina duelako edo gurasoek hala erabaki dutelako, beste aukerarik ez duelako eta ez izan beharko litzatekeen gozamen iturri bezala. Haurrak ez du eskolara joan behararen zergatia edo beharra ulertuko, eta ondorioz, ezta bere gurasoekiko banaketaren zergatia.

Beraz, hezitzaileak eta pertsona esanguratsuak prest egon beharko dira lehenengo eskola egunetan haurrari bere emozioak adierazten aukera emateko, eta hau kontuan hartuta, ulermena eta babesa eskaintzeko.

Honetaz gain, komenigarria da ere haurrari gauzak ahalik eta era argiengan azaltzea eta argi uztea zergatik joango den eta noiz bueltatuko den bere senitartekoa.

- Banaketak iraupen luzea eta egunerokotasun sistematikoa izango du, antzerako aurrekaririk ez duenak.

Lehenengo banaketa egunetan haurra ez da eroso sentituko eta argi utziko du. Egun hauetan hezitzailearen eginbeharra haurrari ulermena eta babesa eskaintzea izango da,

hau da, honen sufrimendua ahal duen neurrian arintzea. Baina hezitzaileak ez balu horrela erantzungo, haurra iheskor azalduko litzateke, lasaitasun itxura emanaz, eta ondorioz, hezitzaileak haurra etxekoturik legokeela joko luke. Fase honetan, haurrak laguntzarik jasoko ez balu, haurrak ezaxolazko eta etsipenezko hirugarren fase batean jauzteko arrisku bizian legoke, aktibo izateko grina galduz eta munduarekiko interesa erakusteko eta hau ezagutzeko ahalegina galduz (Falk, 1968).

#### **4.5. PROZESUA ERRAZTEN DUTEN ZENBAIT EKARPEN**

Orain arte esan bezala, etxekotze prozesuak une hau bereziki zaila bihurtzen duten zenbait faktore ditu. Hau honela izanik, prozesu hau nolabait errazten duten zenbait lagungarri eskaini behar zaizkio haurrari. Era honetan, egoera berri honi aurre egiteko behar duen segurtasunarekin hornituz.

Alde batetik, hezitzailearekiko errespetuzko eta segurtasunezko lotura afektiboa eskaini behar zaio banakako arreta uneetan, hau da, zaintza uneetan garatu egiten dena baldin eta hauek kalitatezkoak eta errespetuzkoak badira. Hau horrela, hezitzaileak haurrari ingurune berrian ekiteko ezinbestekoa duen segurtasuna eskaini ahal izango dio.

Bestetik, haur batzuek badute segurtasuna eta kontsolamendua eskaintzen dioten zenbait objektu, trantsizionalak deritzenak, zeintzuek prozesu honetan oso baliagarriak izango diren atxikimendu irudiarekiko banaketak sortutako larritasuna gainditzeko.

#### **Zaintzak**

Etxekotze prozesuaren helburu nagusia errespetuzko giro lasai bat lortzea izanik, haurren ongizatea bermatuz eta etxetik eskolarako igarobidea erraztuz, ezinbestekoa da haurrak heldu esanguratsu batekin, hezitzailearekin normalean, harreman edo lotura afektiboa eraikitzea (Febrer eta Jansà, 2011). Honen bidez, haurra seguru sentituko da eta ondorioz, bere ingurunea ikertu eta besteekin harremanatuko da.

Hezitzailearekiko lotura esanguratsu hau banakako arreta uneetan eraikitzen da, beraz, haurrari eskaintzen zaizkion zaintzak afektuzko erlazioa eraikitzen hasteko une ezin hobeak dira.

Zaintzak une bikainak dira haurrarekin komunikazio egoera aberasgarriak sortzeko, hauetan hezitzaileak haurra entzun

eta bere adierazpenak antzeman eta errespetatzen ditu, eta haurraren jokabidea ezagutu eta bere hizkuntza korporalarekin bidaltzen dituen mezueta egokitzen da.



1. argazkia: Zaintza unean sortutako gozamenezko giroa.

Haurrekin igarotako une hauek, Julian de Ajuriaguerrak (1911-1993) gizakien arteko lehenengo komunikazio erari izena eman zion “elkarrizketa tonikoa” sortzeko aukera paregabea eskaintzen dute. Hezitzaileak haurrak bidaltzen dituen seinaleak antzemanaz, hau da, umeak bere keinuekin adierazten duena antzemanaz, hezitzaileak bere kooperazioa eskaintzen dio. Beraz, haurraren eta hezitzailearen artean haurrari konfiantza eskaintzen dion feedback bat sortzen da, izan ere, bere beharraren aurrean erantzun positibo eta begirunetsu bat aurkitzen du (Camps, 2007). Beste era batera esanda, “He learns that in his own way, he can make some impact with his voice, his glance and his gestures on the other person who is taking care of him, and who is the most important for him in his environment.”(Tardos, 2012, 7 or.).

Bestalde, zaintza prozesuan zehar ekingo diren akzioak hitzez adieraztea ere oso lagungarria da haurrentzako, izan ere, haurrak informazio hori barneratu eta bere eskemetan integratzen du, era honetan, gertatuko dena aurreratzeko aukera izango du eta hezitzailearekin nolabaiteko hartu-eman bat izango du.

Haurraren eta hezitzailearen arteko lotura positiboa eratzen denean, zeinetan komunikazio jariora nabarmentzen den, haurra seguru sentitzen da, hezitzailearengan sostengu bat duela sentitzen du eta, beraz, konfiantza sentitzen du. Honek haurrari bere ingurunea aztertzeraz eta honen parte hartzaile aktiboa izatera bultzatuko du.

### Objektu trantsizionala

Donald Winnicott (1896-1971) psikoanalista izan zen “objektu trantsizionala” asmatu zuena. Honen esanetan, objektu honek haurrak berarekiko kanpokoa den objektu bat bereizteko duen gaitasuna adierazten du. Hau da, haurraren psikismoaren egituraketan eta antolamenduan urrats handi bat, izan ere, subjektibotasunaren eta objektibotasunaren desberdintasunean



2. irudia: Haur bat bere objektu trantsizionalarekin lotan.

aurrerapauso itzela da. Hona hemen Winnicottek *Realidad y juego* (1994, 32 orr.) liburuan ematen duen bere teoriaren azalpena: “Es claro que lo transicional no es el objeto. Este representa la transición del bebe, de un estado en que se encuentra fusionado a la madre a una relación con ella como algo exterior y separado”.

Objektu trantsizionala, hortaz, haurrak atxikimendu irudiarekin erlazionatzen duen objektu materialari egiten dio erreferentzia, funtzio psikologiko garrantzitsua betez. Izan ere,

honek amaren zenbait funtzio betetzen ditu. Ama aldendu egiten delarik, segurtasun eta atseginezko iturri garrantzitsu bat osatuz.

Esan bezala, objektu trantsizionala haurrari segurtasuna eskaintzen dion zerbait izanik, haurraren bizitzan oso garrantzitsua suertatzen da, izan ere, kontsolamendua behar duenean honetara jotzen du. Hori horrela, objektu trantsizionalak atxikimendu irudiarekiko banaketan agertzen den larritasuna edo estutasuna kontrolatzen laguntzen dio. Hori dela eta, objektu honek haurraren etxekotze prozesuan lagunduko du. Izan ere, prozesu hau, haurraren behin eta berriro inseguritatea eta estutasuna eragingo duen bidea da eta objektu honek haurra kontsolatu eta berraseguratu egingo du. Horretarako, komenigarria da hezitzaileak haurraren eskura dagoen apalategi batean, haurrari bere objektua uzteko txoko bat atontzea, era honetan, haurrak hau behar izanez gero, honetara jotzeko aukera izango du eta baita hau berriro bere lekuan uzteko jolasten eta deskubritzen jarraitu nahi duenean.

#### **4.6. AURRERA ETA ATZERA PAUSOAK**

Etxekotze prozesua bide luzea da eta edozein prozesuk bezala, zenbait gora-behera izan ditzake, haurrek egoera berri honen aurrean eta pertsona esanguratsuekiko banaketaren aurrean era desberdinetan erantzun baitezakete.

Horregatik, orain arte esan bezala, haurrari ingurune seguru eta erakargarri bat eskaini behar zaio, zeinetan jostailu berriak aurkituko dituen eta jarduera berriak garatzeko aukera izango duen. Honi esker eta berarentzako esanguratsua den pertsonaren presentziari esker, haurrak gero eta seguruago sentituko du bere burua, ingurune berria gero eta era aktiboago batean esploratuz. Une honetan, haurra pausu berriak emateko prest egongo da, hau da, pertsona helduarekiko lehenengo banaketak aurrera eramateko unea helduko da. Hala ere, badira zenbait haur, aurreko baldintza lagungarrietan ere, euren burua eroso sentitzen ez dutenak ingurunea esploratzeko eta gelako bizitzan parte hartzeko, eta beraien pertsona esanguratsuekiko gertu mantentzen direnak. Kasu hauetan, hezitzailearen aldetik, haurra ez da eremu berria deskubritzera behartua izango. Hezitzaileak eta senitartekoak, haurraren inizatiba piztu ahal izateko, haurrari hitz egin eta berarentzat erakargarriak suerta daitezkeen kontuak erakutsi diezaioke, baina hori baino ez, haurra ez da sekula behartua izango bere burua egiteko prest ikusten ez duen gauza bat egitera.

Bestalde, aurretik aipatu bezala, etxekotze prozesua gorabeheratsua suerta daiteke. Zenbaitetan, etxetik eskolarako prozesu honetan, haurrak pausu berriak emateko prest daudela erabakitzen dute hezitzaileak eta senitartekoak. Baina, lehenengo banaketa hauek heltzean, haurra mesfidati agertzen da eta egoerak gainezka egiten dio, honek sufrimendua eraginez. Egoera honen aurrean, prozesuan atzera egitera ausartu behar dira hezitzaile eta



senitartekoak, haurra ez baitago prest era honetako egoera bat kudeatzeko eta honek bereganatua zuen segurtasuna desagertzea eragin dezakeelako. Haur bakoitzak bere denbora behar du eta baliteke haurrak oraindik pertsona esanguratsuaren presentzia behar izatea ingurune berrian ziur sentitzeko eta honetara egiteko. Eta hori da, beraz, eskaini behar zaiona, ez baita batere komenigarria haurrak etxekotze prozesua sufrimenduz bizitzea, honek azkenean haurrak egoeraren aurrean amore ematea ekar baitezake eta une honetatik aurrera haurraren jarrera lasaitasun itxura duen axolagabekeria bilakatzea.

#### **4.7. NORMALTASUNAREN KOLOREAK**

Etxekotze prozesua behar den moduan zaintzen ez denean, eskolako lehenengo egunetan edo asteetan, elkarrekiko muturrekoak diren erreakzio edo jarduera nagusi bi ikus daitezke haurrengan:

- Banaketaren aurrean ezer edo ezer gutxi adieraztea.
- Banaketaren aurrean intentsitate handiko sufrimendua adieraztea.

Muturreko adierazpen bi hauek arazo beraren bi aurpegi baino ez dira, bata erabat barneratua, eta bestea erabat kanporatua, normalean biak larritasunarekin eta gainditu ezinezko frustrazioarekin lotuta doazenak. Batean zein bestean, hezitzaileak adi behatu beharko du portaera zein den eta nondik etor daitekeen, ondoren haurraren ongizatea hobetze aldera zer egin planteatu ahal izateko. Neurri batean, portaera mota biak nahastuta agertu daitezke hainbeste haurrengan, eta horretaz gain, atzera pausoak eragin ditzakete noizean behin, hots, Gabonen ostean, gaixotasun baten atzean eta abar. Orduan, berriro ere kasuaren larritasunaren arabera, argi ikusten da etxekotze prozesuarekin hutsetik hasi edo beharrezkoak diren atzerapausoak eman behar direla

#### **Banaketaren aurrean ezer edo ezer gutxi adierazten duten haurrak**

Badira zenbait haur, haur eskolara hastean, beraienez esanguratsua den pertsonatik banatzean axolagabetasuna adierazten dutenak eta ingurune berrian arazorik gabe geratzen direnak, jadanik etxekoturik daudela emanez. Hezitzaile ez trebatu baten aurrean, ume “gardenak” lirakeke Hala ere, haur hauek ez dute behar besteko segurtasunik eta askotan gogogabetasun handia erakusten dute ingurunea esploratu eta deskubritzerako zein gainerako haur eta hezitzailearekin erlazionatzeko orduan. Haur hauek gelako izkina batean egon ohi dira geldirik, norbait hurbiltzen zaienean beraien gorputzeko postura tentsio handikoa izanik. Benetan etxekotuta egonda, gelako materialetara artez zuzentzen dira arakatzera eta.

Egoera honen atzean, baliteke arazo afektibo larria egotea. Haurrak bere emozio guztiak ezkututzen ditu, ziurrenik atxikimendu-irudiak adierazpen afektiboak errefusatzen dituelako, eta ondorioz, haurrak hauek ekiditen saiatuko da. Larregizko exigentzia bada

ere, ahal duen moduan betetzen saiatuko da atxikimendu irudiaren maitasuna ez galtzeko. Atxikimendu-irudiak ez du haurraren beharrekiko sentsibilitaterik erakutsiko eta honek haurrak bere beharrak ezkutatzera eramango du. Beraz, haurrak ez du bere atxikimendu-irudiaren bidez mundua arakatzeko beharrezkoa den konfiantzarik eta segurtasunik sentituko (Jauregizar, 2013).

Honen aurrean, hezitzaileak haurra behatu beharko du, haurraren arazo eta beharrak antzeman eta hauei tentuz, begirunez eta luzamendurik gabe erantzun beharko die (Febrer eta Jansà, 2011). Hauxe baita haurrari segurtasuna errazteko modu bakarra. Bestalde, hezitzaileak zaintza uneetan haurraren jarrera behatu beharko du eta honetara moldatu beharko du bere esku-hartzea. Bukatzeko, hezitzaileak haurraren adierazpen guztiak kontuan hartuko ditu, hauei ahalik eta erantzun arinena eskainiz, era honetan, haurra bere adierazpenak kontuan hartzen direla jabetuko da, eta ondorioz, gero eta seguruago sentituko da bere emozioak azaleratzeko. Era honetan, hezitzaileak gero eta hobeto ezagutuko du haurra eta bere betebeharrak asetzea gero eta errazago gertatuko zaio, gelako giroa gero eta beroagoa eta lasaiagoa suertatuz.

### **Banaketaren aurrean intentsitate handiko sufrimendua adierazten duten haurrak**

Kontrako muturrean badira zenbait haur atxikimendu-irudiarekiko banaketa larritasun handiz bizi dutenak. Haur hauei egoerak eta emozioak gainezka egiten die, beldurra sentitzen dute, eta ondorioz, ez dira batere seguru sentitzen ingurua esploratzeko. Ume hauek egoera honen aurrean blokeo itzela sentitzen dute. Beraien adierazpen intentsitateagatik askoz ere deigarriagoak dira, eta besteengan, hezitzailea barne, kutsakorragoak dira.

Egoera honen atzean, haurrak egoera berri honi aurre egiteko gaitasun falta dago. Eskatzen ari zaiona gainezka egiten dio, haurrak denbora behar du egoera berri honetara egokitzeke. Berarentzat guztiz ezezaguna zaion inguruari aurre egin beharko dio eta baita berarentzat berriak diren arauak eta errutinak bereganatu beharko ditu.

Honen aurrean, ezinbestekoa da haurrak emozioak adierazteko aukera izatea eta adierazpen horretan hezitzailearengan ulermena eta babesa aurkitzea (Falk, 1968). Beraz, hezitzaileak haurraren negarra eta ezinegona adierazpen modu gisa hartu beharko ditu, hauen esanahia ulertu eta honi erantzun egokia eman beharko dio, esate baterako zerbait eskainiz edota eskolako egunaren egonaldiari amaiera emanez. Izan ere, era honetan haurra hezitzailearengandik ulertua sentituko da eta honek ingurune eta jende berria esploratzen hasteko konfiantza eskainiko dio eta ondorioz, haurra seguru sentituko da. Guzti honetarako ezinbestekoa da denbora eta ume kopuru mugatua. Hona hemen Judit Falkek 1968an emozioen azaleratzeari buruzko hitz batzuk: "L'expression de son chagrin,

la compréhension de sa peine et l'aide que nous lui apportons peuvent développer la relation qui sera la base de la véritable adaptation de l'enfant” (187 or).

Bi mutur hauen artean milaka kolore daude. Izatez ondo baino hobeto bere etxekotze prozesuan joandako edonori eta egoera berri honi lasai aurre egin dionak eta kontrara prozesuan zehar sufritu egin duenak. Beraz, hezitzaileak argi izan behar du bere eginbehar nagusietako bat behatzea izan behar dela, era honetan haurraren ongizatea bermatuz.

## **5. ONDORIOAK**

### **Gaur egungo egoera**

Emakumeen lan merkaturatzeak aldaketa sozial eta ekonomiko handia eragiteaz gain, gizartean eta bereziki hezkuntzan eragin izan du. Iraganean, emakumea zen haurraren zaintzaz eta hezkuntzaz arduratzen zena, baina hau lan munduan sartzean, eskolatze goiztiar moduan ezagutzen den fenomeno ematen hasi zen, hau da, haurra hilabete gutxi batzuekin, askotan lau hilabeterekin, hasten da haur eskolara joaten.

Adin honetan, haurra atxikimendu irudiarrekiko lotura afektiboa garatzen ari da, hauxe izan baita txikitatik bere behar fisiologikoak ase eta berarentzako lasaia eta segurua zen ingurunea eskaini diona. Beraz, haurrari zaila eta mingarria suertatuko zaio bere atxikimendu iruditik aldentzea eta berarentzat guttiz arrotza den ingurune berri batean murgiltzea, honek kasu gehienetan haurraren ingurunearen inseguritatea eta ondorioz sufrimendua sortuz.

Haurraren egoera hau arintzeko asmoz, urteetan zehar eskolek egokitzapen aldia eskaini diote haurrari ingurune, ohitura, arau eta pertsona berriei egokitzeko. Egokitzapen aldi honen atzean, haurra eskolara moldatu behar izatea dago, hau da, eskolako erritmoak lehen bait lehen barneratzea. Hau da, haur eskolak bere bidea proposatu egiten du eta haurrak eta bere familiak bide hori jarraitzeko aukera baino ez dute, askotan oraindik eta inseguritate eta etsipen handiagoa sortuz.

Egokitzapen aldi honen planteamendua, gaur egungo eskolatze goiztiarra baldintzatzen duen “lehen mailaratzearen” (Herrán, 2014) joeraren isla argi bat da. Izan ere, honen arabera, haurraren berezko garapena eta erritmoa errespetatu beharrean, haurra maila gorenago batean jarri nahi da. Kasu honetan, gauza berriak irakasten hasteko, haurra ingurune berrira ahalik eta bizkorren moldatzea lortu nahi da, honek haurraren sor dezakeena kontuan hartu gabe: beldurra, larridura, eta haurrari bi hauek ondo kudeatzen lagunduko ez balitzaizkio, axolagabekeria.

Kontuan hartuta lehenengo eskola urteak haurraren etorkizunean Eskolarekiko (larriz idatzia oraingo honetan, kultur mundura zabaltzeaz arduratzen den giza erakundea baita eskola) jarrera baldintzatuko dutela, egokitzapen aldiko planteamendua aztertuz baliteke

haurrak eskola sufrimendu sentimenduarekin lotzea eta ondorioz gainerako eskola urteak hala bizitzea, prozesu honetan haurra gainezka egingo dion egoera baten aurrean ipiniko baita eskola erritmoetara arrapalada batean moldatzeko.

### **Hezitzaileak jardunbidea birplanteatzen**

Gaur egungo egoera zein den kontuan hartuta, argi dago haurraren eskolatze garaian aurrera eramaten den planteamendua birplanteatu egin behar dela. Eskolak ez dizkio eta, haurraren beharrei modu egoki batean erantzuten.

Judith Falkek (2011) dioen moduan, hezitzaileon helburua eskola atsegina izanik, ezinbestekoa da hezitzailearen eta familiaren artean komuna den hezkuntza proiektua garatzea, zeinetan bi hauen elkarlanari esker haurraren hezkuntza norabide berean joango den eta ondorioz haurra seguru sentituko den. Prozesu horri etxekotze prozesua deritzo eta honen arabera haurraren hezkuntzan parte hartuko duten eragile guztien elkarlanari esker haurraren beharrak asetzeko ezinbestekoa den giro patxadatsua sortuko da, non haurrak konfiantza nahikoa sentituko duen berezkoa duen jarduera autonomoari ekiteko, hau da, deskubritzeko.

Bestalde, hezitzaileek argi izan behar dute ere euren jarrera profesionalak ezinbestekoak diren hiru ezaugarri izan beharko dituela, eskolatze garaian haurrari beharrezkoa duen sostengua emateko batez ere: behatzeko gaitasuna, sentikortasuna eta euste ahalmena. Haurra behatzen jakitea ezinbestekoa da, honen behar txiki eta zorrotzeneri tentuz eta begirunez erantzuteko gai izateko, era honetan, haurra inguru berrian erosoago sentituko da eta ondorioz ziurrago. Bestalde, hezitzailea gai izan behar da haurraren portaera eta egoera emozionala aztertze ere eta hauen arabera haurrak behar duen sostengua eskaintzeko. Izan ere, etxekotze prozesuak emozio ugari sortuko ditu haurraren eta hauek azaleratzen laguntzeaz gain, hauei erantzun egokia eman beharko dio haurrak prozesuan aurrera egin ahal izateko.

## 6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Bowlby, J. (1989). *Una base segura: aplicaciones clínicas de una teoría del apego*. Buenos Aires, Argentina: Paidós
- Camps, C. (2007). El diálogo tónico y la construcción de la identidad personal. *Revista Iberoamericana de Psicomotricidad y Técnicas Corporales*, 25, 5-30.
- Erkizia Amilibia, B. (2002). *Psikopatologiako hiztegia* S.N.
- Euskal Estatistika Erakundea. 2014. *Euskal AEko eskolatzeko-tasak, adinaren eta mailaren arabera (%)*. 2012. 2015-02-18an berreskuratua, hemendik: [http://eu.eustat.es/ci\\_ci/elementos/ele0002900/tbl0002915\\_e.html#axzz3Zee1Hpbe](http://eu.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0002900/tbl0002915_e.html#axzz3Zee1Hpbe)
- Falk, J. (1968). Le problème de la continuité dans l'éducation des enfants vivant en pouponnière. *Óvodai nevelés*, 21(7-8), 285-290.
- Febrer, I.; Jansà, E. (2011). *Empieza la escuela infantil, un proceso de familiarización*. *Infancia: educar de 0 a 6 años*, (129), 10-16.
- Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa. (2010). *Atxikimendua*. 2015-02-14an berreskuratua, hemendik: <http://www1.euskadi.net/harluxet/>
- Herrán, E. (2014). Pikler-Lóczy Eredua: zaintzea denean hezkuntzaren abiapuntua. *Tantak*, 26(2).
- Jauregizar Albonigamayor, J. (2013). *Atxikimendua ulertzen hezkuntzaren ikuspuntutik*. Bilbo, Espainia: EHU. Argitalpen Zerbitzua.
- Kintela, J. (1987). Separarse para ir a la escuela por primera vez: de la desolación compartida al constructivismo. En *Jornades de Pedagogia Operatoria (Eds.), IV Jornades de Pedagogia Operatòria. Desenvolupament i medi escolar* (157-163 orr.). Bartzelona, Espainia: IMIPAE.
- López, F. (1998). Evolución de los vínculos de apego en las relaciones familiares, in *Familia y desarrollo humano* (117-140 orr.). Madril, Espainia: Alianza.
- Lorenz, K. (1976). *El comportamiento animal y humano*. Bartzelona, Espainia: Plaza & Janes
- Ortiz, M. J. (2001). Atxikimenduaren garapena, in *Atxikimendua* (4-29 orr.) Donostia, Espainia: Xangorin.
- Pikler-Lóczy Haur Eskola Hezitzaile taldea (2010) *Egokitzapen aldia haur eskolan*. Budapest, Hungaria: Autor.
- Tardos, A. (2012). Let the infant play by himself as well. *The first years: Nga Tau Tuatahi, New Zealand Journal of Infant and Toddler education*, 14, 4-9.
- Wallon, H. (1985). *La vida mental*. Bartzelona, Espainia: Crítica
- Winnicott, D. W. (1994). *Realidad y Juego*. Bartzelona, Espainia: Gedisa